

TXONDORRAN BUELTAN



TXONDORRAN BUELTAN

Oñati, 2023ko iraila - Behin behineko txostena

Txosten honetan Oñatiko herritar talde batek, 2024. urtean **txondorra** egiteko duen asmoa aurkezten da, Oñatiko Udaleko sail zehatz batzuei egitasmoa azaldu eta zenbait proposamen edo eskari egiteko helburuaz. Gogo hau herritik jaio da eta dagoeneko herritar ezberdinez osatutako talde bat hasi gara *txondorraren buelta* horretan antolatzen¹, Gure Bazterrak Kultur Elkarte (IFZ G02818318) bidelagun dugula.

Datozen orrietan planteamenduak zertan datzan azalduko da, gure aurreikuspenen arabera hau aurrera eramateko beharrezko baliabideak zeintzuk diren eta denboraren antolaketa zein izango den garbi geratu dadin.

ZER, ZERTARAKO eta ZERGATIK egingo dugun

Txondorra egitearen emaitza **egur-ikatz** izango da, baina gure nahiak azken produktu material horretatik haratago doaz. Talde-lanean **pago-egurrezko txondor** bat gure eskuz egin eta sutu nahi dugu, **bien bitartean erlazionatutako beste zenbait ezagutza landu, elkarbanatu, ikasi eta iraurazteko**. Horretarako, txondorraz eta baso-lanez gain, bestelako ekintzak ere antolatuko dira. Une honetan egitarau hori zehazteko lanetan gabilitza eta dagoeneko ideia orokor batzuk jasoak ditugu.

Lehenik eta behin, testuinguruan kokatzeko, azalpen historiko labur bat egitea komeni da. Hartara, gaur egungo egoera eta egitasmoaren helburuak hobeto ulertuko dira, ikazkintza Olentzero baino askoz gehiago da-eta.

Testuinguru orokorra

Egur-ikatz izan zen euskal burdinolen erregaia², industrializazioan inportatutako harrikatza erabiltzen hasi zen arte. Oñatin bertan ere, jarduera ekonomiko horren baitan eta erregai hori lortzeko, ingurumena kudeatu eta ustiatzeko moduen aztarna nabarmenak ditugu. Eta, horrekin batera, nola ez, zenbait ezagutza, bizimodu eta jendartearen antolaera ere: *txondor-potolo*z josita dauden hedadura handiko pagadiak (horietako asko pago-motzak), horietatik lantegietarainoko *burdibide* eta errepideak, burdingintzarekin lotutako hamaika lanbide, eta abar luze bat.

Baina, azkenik eta gehienbat, **ikazkintzaz eta ikazkinez** aritu nahi genuke, asko izan dira-eta dela lanbide gisa, dela jarduera osagarri modura, zeregin honetan aritutako herritarrak. Ez da edonolako lana gainera! "*lanbide zakarra da ikazkintzaia*" esan ohi dute zaharrek, zentzu bat baino gehiagorekin. Horiek eta beste asko, proiektuak aurrera egin ahala aztertzen, azaleratzen eta transmititzen joango diren kontuak dira.

Gorabeherak gorabehera, ikazkintzak izugarritzko gainbehera jasan duela eta gaur egun ia-ia **lanbide gogor eta etekin gutxiko hura ezagutarazteko jardunbide didaktikoa** izatera mugatua dagoela da kontua.

¹ Bilerak egiten, informazio orokorra eta historikoa biltzen, prozesua ezagutzen duten pertsonekin harremanetan jartzen, ekintza ezberdinen ideiak jasotzen, lehendabiziko kalkuluak ateratzen... ari gara apurka-apurka.

² Beste erabilpen batzuk ere izan dituen arren (adib. berogarri gisa estufatarako, burdinazko ikatz-plantxetan arropa lisatzeko, etab.)

Baina aurten Oñatin, **jarduera honen erakustaldi tradizional huts bat egitetik haratago** joan nahi genuke, **lanketa osatuago** bati bide emanaz. **Ikazkintzaren mundua ulertu, ikusi eta ikasteko abagunea izango da.** Baina iraganeko **bizimodu batzuk gogora ekartzeaz gain, baita basoen ustiapenerako zein ikatzaren ekoizpenerako ezagutzak balioan jarri eta egungo egoeraz hausnartzeko abiapuntua ere.**

Ikusi den bezala ikazkintzarena ez da jarduera ekonomiko hutsa, ez-eta isolatua ere. Proiektu honek bere alderdi ezberdinak izango ditu kontutan eta elkarren osagarri izan arren, bi esparru nagusi hauek bereizi ditugu, bakoitzak behar duen tokia izan dezan. Esparruetako bakoitza udaleko sail ezberdin batekin erlazionatu dugu, bakoitzaren gaitegi orokorra eta ekintza posibleak zerrendatuz ondoren:

- **Ingurumena:** natur baliabideen ustiapena eta ezagutza, basoaren eta herri-lurren kudeaketa ereduak, oreka ekonomiko eta ekologikoak, energia-iturriak, pago-motzen eta txaradien ustiapen ereduak, basogintza ...
 - Pago-mozketa ikastaroa, pagadiak ulertu eta ezagutzeko irteerak ...
- **Kultura:** herritarron historia, herriko tokien ezagutza, talde-lanak eta jendartearen antolaerak, antzinako ezagutzen transmisioa, sinesmenak, errituak, ikazkintza eta burdingintza Oñatin, ikatzaren erabilera historikoa, garraio-moduak eta -bideak ...
 - Erakusketa, hitzaldi, irteera, tailer... eta ikerketa txiki baten ostean, dibulgaziorako esku-orriak.

Aurrekariak, talde-lana eta aliantzak, baliabide

Badakigu ez garela hau mahai gainean jartzen dugun lehenengoak; gaur egun herri ezberdin askotan egiten dira antzekoak. Adibidez, aurten Goizuetan izan ginen, bertan egin duten txondorra egosten zegoela³. Oñatin bertan ere, baditugu halako erakustaldien aurrekariak: 1989ko Kilometroan Asentzian, 1995ean Araotzen ... Gure makulu izango diren esperientziak denak ere. Gainera, ingurumena edota kultura ardatz dituzten eragile zein egitasmoen zerrenda luzea datorkigu burura, lehenengoak zein oraingoak, jakin badakigunak lagungarriak eta osagarriak izango zaizkigula⁴.

Talde eragile edo motorea oso perfil ezberdinetako jendeak osatzen du. Tartean, ekoizpen prozesua ongi ezagutzen duen pertsona bat ere badago, noski. Aniztasuna aberastasuna da eta beraz, seguru gaude nork bere esparrutik dakarrenaz eta elkarrengandik ikasiz, zerbait polita egingo dugula.

Esan gabe doa gazte eta helduek tiratutakoa izanagatik, hasi haurretatik eta zaharretara arte, adin-tarte zabal baten interesa piztuko duen egitasmo baten aurrean gaudela. Banako gisa zein taldean, herritar ezberdin askok euren partehartze-aletxoak izan dezake txondorraren bueltan. Jakinaren gainean gaude halaber, parte-hartze horrek zer-nolakoa izan behar duen ondo zehaztu eta antolatzea ezinbestekoa izango dela, txondorra bera zein antolakuntza lantaldea *erre* edo *itto* ez dadin.

³ Ikazkin-antolatzaileekin harremanetan jarri ginen eta gauzarik funtsezkoenak argitu.

⁴ Gogora datozkigu: Oñatiko Natur Eskola, Artixa Taldea, auzo-elkarteak, gazte mugimendua, hezkuntzako erakunde eta eragileak, Laixan eta Kapirixo taldeek egindako argitalpen eta ekimenak... eta, ofizioz edo afizioz, landu nahi dugun gaiarekin zerikusia duen beste banako eta talde mordoxka bat.

NON, NOIZ eta NOLA egingo dugun

Hemen behean zehaztaperen garrantzitsuenak baino ez dira jasotzen. Egitasmo osoaren orain arteko, eta beraz behin-behinekoa den, diseinua **kronograman**⁵ eta **aurrekontuan** jasota datoz.

NON

- Txondorraren kokapena: Aukera ezberdinak aztertu ostean, **txondor-plaza San Martingo zuhaitziaren ertzean, ermita eta errekaen arteko esparruan** kokatzea erabaki dugu. Irizpide ezberdin asko hartu ditugu kontutan⁶ eta, behin-betiko erabakia ez bada ere, toki egokia hauxe dela ondorioztatu dugu. Baimen honen esleipenak Udalarari dagokiolakoan gaude.
- Beste ekintzak: hitzaldi, irteera, ikastaro eta antzekoetarako herriko espazio eta baliabide ezberdinak erabiliko genituzke. Batzuk basoan bertan eta beste batzuk aterpean egin beharrekoak izango dira. Egitaraua zehaztu ahala joango gara hauek ere aukeratzen.

NOIZ

Aurtengo (2023) ekainean hasi ginen eta, gure aurreikuspenen arabera, 2024ko uztaile arte (txondorra desegin eta ikatza atera arte) gutxienez luzatuko da egitasmoa. Gero gerokoak.

- Txondorraren prestakuntza, piztuera eta egosaldia: Txondorra ekainaren lehenengo egunetan piztuko da, bi asteko egosaldia izango duela kalkulatu dugu eta ekainaren erdialdean, ikatza ateratzeko lanak burutu ondoren, amaituko da.⁷ Piztu-aurreko egunetan hasiko dira txondorraren eta inguruaren muntaia-lanak.
- Egurraren mozketarako, zuhaitzarentzat egokiena den garaia errespetatuko da (udazkena-negua). Hartara, udaberrirako egurra egosteko baldintza onetan egotea espero dugu.
- Gainontzeko denbora-tartea lanak antolatu eta ekintzak burutzen pasako dugu: materialak eta tresneria prestatu, ikastaroak, irteerak, zaintzen antolakuntza eta izen-emateak, dokumentatzea eta dibulgazio-materiala prestatzea ...

NOLA

Aurreko orriko, *aurrekariak*, *talde-lana* eta *aliantzak* azpiatalean, giza baliabideen inguruko aipamen labur bat egin da. Baliabide ekonomiko-logistikoen aurrekontua azken eranskinean dator.

⁵ Data batzuk orientagarriak/gutxigorabeherakoak dira; aldaketa txikiak egon daitezke eguraldiaren arabera.

⁶ Kontutan hartu dira esate baterako jendearen eta materialen garraiorako-ibilgailuen irisgarritasuna (zalgurdian), zoruaren egokitasuna, ingurunearen babesa eta segurtasuna, haizearekiko babesa eta ur-iturri batekiko gertutasuna, etxebizitzekiko distantzia nahikoa, etab.

⁷ Data hauek orientagarriak/gutxigorabeherakoak dira; aldaketa txikiak egon daitezke eguraldiaren arabera.

KRONOGRAMA

2 0 2 3	EKAINA	Goizuetako txondorrera irteerak (egosten zegoela eta ikatza ateratzen). Taldea osatu. Lehenengo bilerak.		
	UZTAILA ABUZTUA	Herriko esperientziadun ikazkin batekin kontaktuan jartzea eta baiezkoa jasotzea. Dokumentatzea (bibliografia bildu, artxiboko kontsultak, ahozko testigantzen entzuketak, prentsa argitalpenak, argazki zaharrak, Txantxikubasoko (Iturrigorri inguruak) txondorra...). Dena Drive-n biltzen ari gara.		
	IRAILA	Bilerak. Egitasmoaren zehaztapena (tokia, datak eta aurrekontua) eta lehen txostenaren idazketa.		
	URRIA	Bilerak: Egitarauaren behin behineko zehaztapena (datak, ordutegiak, hizlariak, ibilbideak... Diseinuarekin hasi). Arduren banaketa. Udalarekin bilera: Proiektuaren azalpena eta aurrekontuaren onarpena. Dokumentatzea eta argitalpenaren idazketa.		
	AZAROA	Bilerak: Egitarauaren behin betiko zehaztapena (diseinua, aurkezpena, hedapena). Egurra bota(?) → Ikastaroa + grabaketa	Komunikazioa	EGITARAUA ATERA EGURRA BOTA
	ABENDUA	Bilerak. Egurra bota(?) → Ikastaroa + grabaketa		
2 0 2 4	URTARRILA	Bilerak. Ekintzak. Hitzaldi 1	HITZALDIK IRTEERAK ERAKUSKETA TAILERRAK ...	TRESNERIA PRESTATU
	OTSAILA	Bilerak. Ekintzak. Erakusketa 1		
	MARTXOA	Bilerak. Ekintzak. Tailer 1		
	APIRILA	Bilerak. Ekintzak. Irteera 1		
	MAIATZA	Bilerak: Zaintzaileen izen-ematea. Ekintzak. MATERIAL BILKETA ETA EKARTZEA Grabaketa.	Txondorrean bertan egin daitezkeen ekintza txikiak?	TXONDORRERAKO MATERIALAK BILDU ETA EKARRI
	EKAINA	Bilerak. Ekintzak. TXONDORRA Grabaketa.		EGURRA PRESTATU ETA TXONDORRAREN MUNTAIA
				TXONDORRA PIZTUTA Ekainak 1-15
				IKATZA ATERA
UZTAILA	Bilera eta afora: Balorazioa eta <i>sorgin-afaixa</i> .	SORGIN-AFAIXA		
ABUZ. - ABEN.	Dirukontuak eta azken txostena.			

AURREKONTUA		
EKINTZA/BALIABIDEA	AURREKONTUA	GUZTIRA
TXONDORRAREN MATERIALAK ETA GARRAIOA ⁸	2000€	7000 €
PAGO-MOZKETA IKASTARO/ERAKUSTALDIA ⁹	300 €	
JOAN-ETORRIAK	200 €	
ESKU-TRESNERIA ¹⁰	400 €	
IKAZKINEN DIETAK ¹¹	600 €	
HEDAPENA - KOMUNIKAZIOA ¹²	500 €	
DOKUMENTATZEA, IKERKETA ETA DIBULGAZIO ARGITALPENA ¹³	600 €	
ERAKUSKETA, TAILER, HITZALDI, IRTEERA ¹⁴ ...	800 €	
PROZESUAREN GRABAKETA ¹⁵	400 €	
EZUSTEKOAK	1200 €	

⁸ Egurra, abarrak eta estalkia: txondorra eta *kamañia* egiteko. **30 tona pago-egur**. Mozketa: **egurra udalak emango** balu, mozketa-lanak hartan diharduen profesional bati esleituko litzaizkioke. (2 langileren 2 laguneko kalkulua dago eginda. 1000€). Garraioa, bi alditan (1000€).

⁹ Ikastaro-erakustaldia. Mozketa-teknika ezberdinak erakusten dira. Eredu gisa, Trepalarik, Euskal Herriko Arbolazaintzaren Elkarteak eskeintzen ditu halakoak.

¹⁰ Zenbaiten erosteta, beste batzuen konponketa/atontzea edota hauek egiteko ikastaroa (beraz, materialaren gastuak).

¹¹ Molde zaharraren antzera. Egun bakoitzeko: kuartillo 1 ardo (0,5 litro inguru), ikazkin bakoitzeko + ogi 1 eguneko, kuadrilla denarentzat. (15 egun, 8ko kuadrilla). = 15 ogi + 60 litro ardo.

¹² Komunikaziorako baliabideen diseinua eta kartel/eskuorrien inprimaketa. Hortik kanpo, sare sozialak eta bestelako komunikabideak (irratia, prentsa...) erabiliko dira.

¹³ Fotokopiak, bibliografiaren erosteta eta liburuxkak (300 liburuxka).

¹⁴ Mota honetako 4 ekintzaren aurreikuspena. 200€/ekintza aurrekontuarekin.

¹⁵ Ikus-entzunezkoaren grabaketa eta muntaia.